



errenteriako senda-belarrak eta toxikoak



> DESKRIBAPENA

90 cm altuera erdiets dezakeen landare bizikorra. Zurtoinak okerrak eta oso iletsuak ditu. Mozten direnean hori-gorrixka koloreko zuku moduko bat jariatzen dute. Hostoak oso lobulatuak (5-7). Loreak 4 petalo horixka izaten ditu, eta gurutze baten moduan ateratzen zaizkio. 3-6ko arramiletetan banatuak. Frutak leka baten antzekoak, nahiz eta zaran-belarra mitxoleten (amapolen) familiako izan eta ez lekadunena.

> HABITATA

Bide bazter, horma, baserrietako pareta, hesiak,...

> LORATU

Udaberri-udazkenean.

> BILDU

Latexa erabili nahi bada, landarea loratu baino lehen bildu behar da.

> BERTUTE ETA ERABILERA

Zaran-belarra edo garatxo belarra sendabelar gisa jarrera kontraesankorrek sortzen dituen landarea da. Izan ere, autore zenbaitek bere bertuteak goraiatzten dituen bitartean, beste zenbaitek, landare honen latexak duen osaketa kimikoa dela-eta, ez du batere aholkatzen erabiltzea. Horrela, ahots zenbaitek dioenez, landare honen 40-50 gramo latex edanez gero, gizakiaren heriotza eragin dezake.

Aitzitik, garatxoak kentzeko erremedio modura oso zabaldua eta errekonozitua da. Horretarako nahikoa da landare honen latexa garatxoan egunean hiru aldiz ematea. Denbora luze gabe garatxo erreko da eta ondorioz desagertuko. Baina, erne! Ez da sekula zauri irekian eman behar, ezta mukosa sortzen den tokietan.

Gaur egun zaran-belarra ikertzen ari dira, izan ere, tumoreen aurkako propietateak baititu ikusten denez.

>BITXIKERIAK **erriak**

"Chelidonium" izen arrunta, grekerazko "chelidon"-etik (enara) datorkio. Dioscórídesen arabera, izen honek enararen habia du gogoan, hain zuzen enarak etortzen direnean jaiotzen delako eta joaten direnean lehortu. Horrela, zenbaitek idatzi izan du enarek, enara-umeez itsutzen zituztela eta gero bista bueltatu zaran-belarrarekin begiak ukituz.

Feijook gai honi buruz zera zioen: "Enarak zaran-belarra (enara-belarra ere deiturikoa) bere umeei bista ekarrarazteko erabiltzen duela autore askok idatzi du, eta kontu hau herri xehearen artean oso zabaldua dago. Hori horrela, zenbaiten arabera, enarak itsuak sortzen dira eta belar honen bidez kentzen diote ikusteko traba; beste zenbaiten ustetan, sendatu egiten ditu baldin eta norbaitek begiak zaurituz itsutu bazituen; aldiz, beste batzuk, begiak atera ondoren berriro biztuarazten dizkiotela diote. Dena kontua da. Egia -hori dela medio sortu zen hein batean elezaharra- zera da: Enaren umeei begiek hatz nahia ematen badiete, ikusmena galtzen dutela, baina handik denbora gutxira berriro eskuratzen dutela. Hauxe da Aristotelesek esaten duen gauza bakarra, nahiz eta zenbaitek, faltsukeriaz bederen, zaran-belarrak sendatzen duen kontuaren egiletzat jotzen duen".

Bestalde, zaran-belarra asko erabiltzen zen Alkimian. Horrela, Erdi Aroko alkimizaleek "zerutik etorritako grazi" edo "coeli donum" gisa ezagutzen zuten.

Asturiasen, zaran-belarra oso goraipatua da baserri inguruetan. Eta horregatixe dio esaldi herrikoiak ondorengo hauxe: "la cirigüeña (asturiarrek deitzen dioten modua) de todos los males es dueña".